

BERGARAKO UDALA
ELEKTRIZITATEKO ARDURADUN PLAZA
HAUTAKETA PROZESUAREN HASIERA.
BIGARREN ARIKETA

Elektrizitateko Arduradun plaza behin betirako betetzeko deialdia arautzen duten oinarrietan hau dago jasota:

Zortzigarrena. Azterketen fasearen jardunbidea

Epaimahai Kalifikatzaileak erabaki ahal dezake ariketak 7. oinarrian adierazitako hurrenkeraz bestela egitea, bai eta egun berean probetako bat baino gehiago egitea ere; kasu horretan, aurreko proba gainditu dutenen probak bakarrik ebaluatuko ditu.

Oinarrietan jasotakoa ikusita, epaimahaiak honako hau erabaki duela jakinarazten zaie izangaiei:

1.- Hautaketa prozesuko oposizioaldiari dagokion fasea oposizioaldiko bigarren ariketarekin hastea.

Honela dio bigarren ariketak:

"Bigarren ariketa: Derrigorrezkoa eta baztertzalea hautagai guztientzat: lanpostuaren profilari egokitzeari buruzko probak.

Hautagaiak lanpostuaren profil profesional eta bete beharreko funtzioetara nola egokitzen diren ebaluatzerak bideraturiko gaitasun edo/eta nortasunari buruzko proba psikoteknikoak egitea izango da. Probek elkarriketa ere izan dezakete.

Bigarren ariketa honi hogeita bost (25) puntu emango zaizkio gehienez, eta proba edo / eta ariketa bakoitzari emandako puntuazioaren %50a eta guztira hamabi eta erdi (12,5) puntu lortu beharko dira gainditzeko eta prozesuarekin jarraitzeko. Ariketaren informazioa proba egin aurretik emango da jakitera."

2.- **Noiz** izango da: **Urriaren 4an hasiko da** eta izangai bakoitza deituko zaion ordutegian bertaratu beharko da. Txandak egingo dira eta txanden zerrenda izangaien NANaren zenbakia aintzat hartu eta handienetik txikienera emango duen lehentasun-ordenan osatuko da.

Ordutegia eta egutegia web-orrian argitara emango da .

3.- **Non:** Udal Liburutegira (Errotalde jauregia) bertaratutako dira, argitaratuko den eguna eta ordua baino 10 minutu lehenago.

Bertaratzen ez direnak hautaketa-prozesutik baztertuak izango dira.

4.- Ariketaren/ariketen inguruko **informazio osagarria** gutxienez bi egun lehenago argitaratuko da Bergarako Udalaren web-orrian eta udalaren iragarki taulan.

Bergara, 2022ko uztailaren 26a

Epaimahaiaren idazkaria

